



Erakunde autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**Baliabide judizialei eta letradu-
laguntzari buruzko ebaluazioa,
emakumeen aurkako indarkeriaren
arloan.**

Txosten exekutiboa.

2017/01/20

INFOPOLIS 2000 S.L

Marta Dolado Galíndez andrearen kolaborazioarekin.

Aurkibidea

1. IKERKETAREN DESKRIBAPENA	3
1.1. Azterlanaren xedea	
1.2. Helburuak	
1.3. Ikuspuntua	
1.4. Ebaluazioaren eredia eta garapena	
2. LEGE- ETA ANTOLAMENDU-ESPARRUA. 2007KO EBALUAZIOAREKIKO KONPARAZIOA	7
3. EMAITZAK ETA GOMENDIOAK	9
3.1. Arretaren helmena	9
3.1.1. Epaitegiak: 2007-2015 jarduera	
3.1.2. Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa: 2014-2015 jarduera	
3.1.3. Ministerio Fiskala: 2012-2015 jarduera	
3.1.4. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua: 2012-2015 jarduera	
3.1.5. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua: 2007-2015 jarduera	
3.1.6. Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktimei letradu-laguntza emateko txanda espezifikoa: 2007-2015 jarduera	
3.2. Ondorioak	12
3.2.1. Sistema judizialaren egoera eta efikaziari buruzko orokorrak	
3.2.2. Lege-esparrua betetzeko mekanismoak, estaldura eta ikuspuntua	
3.2.3. Oztupoak prozeduretan	
3.2.4. Epaitegien egoera	
3.2.5. Operadore juridikoen eta letradu-laguntzako profesionalen egoera	
3.2.6. Gaikuntza eta prestakuntza	
3.3. Sistema judiziala eta letradu-laguntza hobetzeko gomendioak	16
3.3.1. Lege-esparrua eta hura betetzeko mekanismoak	
3.3.2. Genero-indarkeriari buruzko prestakuntza espezifikoa	
3.3.3. Baliabideak eta jarduerak	
3.3.4. Azken gomendioak	

SARRERA

2006. urtean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Emakumeen eta Gizonen berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2 artikuluko agindua betez¹, ebaluatzen hasi zen, aldizka, ea erakundeek zer nolako erantzuna ematen zuten etxeko tratu txarren egoeretan, hainbat arreta-eremutan.

Agindu hori betez, 2007. urtean, baliabide polizialak² eta judizialak eta letradu-laguntza³ ebaluatu ziren, horiek baitira EAren eremuan emakumeen aurkako indarkeriaren aurrean erantzuna ematen duten erakundeak. Bederatzi urte joan dira aurreko ebaluazioa egin zenetik eta hamarkada bat baino gehiago Lege Integrala⁴ indarrean sartu zenez geroztik; beraz, beharrezkoa izan da sistema judizialak eta letradu-laguntzak ematen duten erantzuna berrikustea eta eguneratzea.

Bigarren ebaluazio honek aukera ematen du alde aurretik detektatuko errealitatearekin konparatzeko eta hobeto eta sakonago jakiteko zer premia dituzten genero-indarkeriari aurre egiten dioten pertsonak.

Ondoren, lehen atalean, laburpen bat aurkezten da, planteamendua, ikerketa-prozesua eta parte-hartzearen emaitzak deskribatzeko; hurrengo atalean, sistema judizialaren testuingurua (lege-esparruan izandako aldaketak) eta operadore juridikoena; eta, azkenik, ebaluazio-txostenaren emaitzen eta gomendio nagusien laburpena.

1. IKERKETAREN DESKRIBAPENA

1.1. AZTERLANAREN XEDEA

Azterketa egiteko, indarkeria-motei buruzko informazioa eta datuak jaso dira, eta indarkeria-mota horiek **Erakundeen Arteko II. Akordioan** jasotakoak dira **(Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko Akordioa)**⁵, zeina 2009an sinatu baitzen.

¹ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 51.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, "Emakunde aldian-aldian ebaluatu behar du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena. Horretarako, inplikaturik dauden gainerako euskal herri-administrazioek informazioa emango diote beren ardurapean dituzten baliabideei eta programei buruz".

² Polizia Baliabideen Ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez. Emakunde, 2007.

³ Baliabide Judizialei eta Abokatu-laguntzari buruzko Ebaluazioa, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei dagokienez. Emakunde, 2007.

⁴ 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriak buruzkoa.

⁵ Akordio hori Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatu eta koordinatu zuen, eta honako hauek sinatu zuten: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Fiskaltza, hiru Lurralde Historikoetako Foru Aldundiak, Eudel- Euskadiko Udalen Elkarte, Legelarien Euskal Kontseilua eta Sendagileen Euskal Kontseilua. 2009

II. Akordioan **abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoan zehaztutakoak ere jasotzen dira (1/2004 Lege Organikoa, Genero-indarkeriaren aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa). Hau ezartzen da Akordioaren bigarren atalean:**

1. "Emakumeen aurkako etxeko tratu txartzat hartuko da , oraingo edo lehengo familia harreman eta/edo harreman afektibo batean emakume nerabe edo heldu baten aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo beste mota bateko indarkeria erabiltzea, emakumea menderatzeko, azpiratzeko eta erasotzaileak harremanean agintea eta boterea izateko. Tratu txartzat hartuko da horrek guztiak emakumearengan sufrimendua edo kalte fisiko edo psikikoa sortzen badu".

2. "Emakumearen aurkako sexu-indarkeriatzat hartuko da emakumearen baliozko adostasunik gabe emakume nerabe edo heldu baten aurka egindako edozein sexu jokabide. Adostasunik ez du baliorik izango baldin eta 13 urte baino gutxiagoko adingabe batek edota zentzu murrizta duen batek emana bada, buruko ezgaitasuna izatea gehiegikeriak egiteko baliatzen bada, edota biktimaren askatasuna mugatzen duen ageriko nagusitasun egoera batez baliatutako adostasuna dagoen kasuetan; hori guztia, legeria penalean aurreikusitako baldintzetan".

Informazioa eta datuak, beraz, tipologia hauen gainean osatzen dira:

- **Gizonek beren bikotekideen edo bikotekide ohien aurka baliatzen duten indarkeria:** epaitegiak eta zerbitzu espezifikoak daude eremu juridikoan, prozedurak egin ahal izateko.
- **Familia barruko indarkeria, gizonek emakumeen aurka baliatzen dutena:** etxean gertatzen diren beste indarkeria-egoera batzuk ere sartzen dira; horiei buruzko datuak ere erregistratzen dira, eta horietan ere esku-hartzen dute gizarte-zerbitzuek eta sistema judizialak.
- **Sexu-erasoak.**
- **Genero-indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak;** legerian oso berriki hartu dira horiek zuzeneko biktimatzat⁶.

1.2. HELBURUAK

a. **Indarkeriaren biktimak, sistema judizialek igaro ondoren, zer egoeratan dauden jakitea**, zer hobetu behar den jakiteko, emakume horiek izaten dituzten beste zaurgarritasun batzuk ere kontuan hartuta: adingabe izatea, dibertsitate funtzionala izatea, adinduak izatea, immigranteak eta landa-eremuak izatea, besteak beste.

b. **Ezagutzea eta baloratzea lege-esparruak** nolako estaldura duen, arauaren eta estrategiaren betetze-mailaren arabera; **sistemak zer indargune eta zer ahulgune dituen eta nolako kalitatea duten egiturek, prozesuek, helmenak eta koordinazioak.**

⁶ 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa; 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa eta Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren Atariko Titulua aldatzekoa.

1.3. IKUSPUNTUA

Eremu judizialak eta letradu-laguntzak emakumeen aurkako indarkeriari ematen dioten erantzun instituzionalean, sistema, baliabideak, prozedurak eta koordinazioa globalki aztertzeo eta baloratzeko erreferentzia-esparrua osatzen dute batetik, legeetan ezarritako printzipioek eta orientazioek (giza eskubideei buruzko legeetan, emakumeen eta gizonen berdintasunerako legeetan eta emakumeen aurka baliatutako indarkeriari aurre egiteko legeetan jasoak), eta, bestetik, gure ingurune instituzional eta sozialeko genero- eta berdintasun-politiken helburuek.

Zehazki, Erakundeen Arteko II. Akordioaz eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Planaz gainera, abiapuntua Istanbulerako Hitzarmenean (2011)⁷ eta eremu polizial eta judizialeko funtsezko zerbitzuei buruzko Prozeduretan eta Jarraibideetan dago (NBE eta beste erakunde batzuk).⁸

Hauek dira ikerketaren ikuspunturako printzipio komunak:

Emakumeen aurkako indarkeria emakumeen eta neskatilen giza eskubideen kontrako eraso da. Lege-esparruak ikuspuntu hori jaso behar du, funtsezko eskubide horiek defendatu behar ditu, prebentzioa landu behar du, zigorrak ezarri behar ditu eskubide horiek mehatzatzen dituztenentzat, eta konpentsazioa eta erreparazioa jaso behar du biktimentzat. Horrek esan nahi du lehentasuna eman behar zaiola segurtasunari, bizi-kalitateari eta ongizateari, eta kalitate handiko zerbitzuak eskaini behar zaizkiela emakumeei eta umeei, erraz eskuratzekoak eta egokiak.

Aurrera egin behar da genero-berdintasunean eta emakumearen ahalduntzean. Genero-ikuspuntuari eutsi behar zaio arazoa planteatzen denetik. Alegia, beharrezkoak dira generoa kontuan hartzen duten politikak eta neurriak, emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak toleratzen, barkatzen edo betiketzen ez dituztenak; horretaz gainera, zerbitzuek emakumeen ahalduntzea sustatu behar dute.

Zerbitzuak erabiltzaile guztietara egokitu behar dira: biktima/bizirik atera dena, arreta-sistemaren ardatzean. Kontuan hartu behar da ezaugarri indibidualek baldintzatu egiten dituztela beharrak, eta tratu espezifiko eta indibidualizatua eskatzen dutela. Oso bereziki, zerbitzuek erantzun egokia eman behar diete diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeei: askotariko desgaitasunak, kultura-talde minoritarioak, toxikomaniak, etab.

Biktimaren segurtasuna: lehentasuna. Betekizuna behar du beti, zerbitzuetan arreta planteatzerakoan eta garatzerakoan; gainera, albo-kalteak ekidin behar dira, hala nola berriz biktimizatzea.

⁷ Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria borrokatzeo eta prebenitzeko, 2011ko maiatzaren 11n sinatua, Istanbulen.

⁸ Paquete de servicios esenciales para mujeres y niñas que sufren violencia. Elementos centrales y directrices relativas a la calidad de la atención. UN Women, UNFPA, WHO, UNDP & UNODC, EMAKUNDE, 2016.

Erasotzaileak kontu eman behar du justiziaren aurrean. Sistemak eta haren zerbitzuek lagundu egin behar dute erasotzaileak justiziaren aurrean erantzun dezan eta biktimari erreparazioa eman diezaion, eta, horretaz gainera, saihestu egin behar dute justizia egitearen erantzukizuna biktimari egokitzea, sistema judizialari egokitu beharrean.

1.4. EBALUAZIOAREN EREDUA ETA GARAPENA

Hainbat alderdi ebaluatu behar dira, kontrastea eginez operadore juridikoekin eta letradu-laguntza ematen duten profesionalekin, sistemarekin kontaktua izan duten emakumeekin eta biktimei orientazioa eta laguntza emateko jarduerak egiten dituzten elkarteekin. Hauek dira ebaluatu beharrekoak:

a. Lege-esparrua: emakumeen aurkako indarkeria-motekiko estaldura, eremu guztien arteko koherentzia, biktimei eskaintzen zaien babesa, segurtasuna eta oneratzeara, eta legeak betetzeko mekanismoak eta segimendua.

b. Erakundeek prebentziorako dituzten baliabideak eta zerbitzuak, sistemarekin izaten den hasierako kontaktua, ikerketa-fasea, zigor-arloko instrukzioan, edo azalpen fase zibila, judizioan eta judizio ondokoan. Zer prestasun duten aztertzen da, zer gaitasun duten eta zer nolako prestakuntza duten genero-indarkeriari buruz, prozedurak biktimen beharretara egokituta dauden, zer babes eta laguntza mota eskaintzen den, zer barne mekanismo dauden jarduerari jarraipena egiteko, zer nolako komunikazioa, eta horietan nola parte hartzen duten emakumeek eta adingabeek.

c. Barne prozedurak: entitateek zerbitzuen diseinu, garapen eta balorazioan parte hartzea, datu-bilketa eta informazioaren tratamendua, eta koordinazioa eta beste zerbitzu eta erakunde batzuetara deribatzen diren prozesuak.

d. Arretaren helmena, kontuan hartuta 2012tik 2015era bitarteko urteko arretak eta artatu diren pertsonen ezaugarriak, bai eta arreta-motak ere, operadore juridikoaren arabera.

Ikerketa egiteko, dokumentuak aztertu ziren, eta horretaz gainera, **teknika kualitatiboak** baliatu ziren, hala nola eztabaida-taldeak, sakoneko elkarrizketak (erdi egituratuak) eta zuzeneko behaketa (epaitegietan). Teknika **kuantitatiboak** ere baliatu ziren, galde-sorten eta datu-bilketaren bidez.

Guztira parte hartu dutenak: 66 lagun elkarrizketatu dira, eta 30 laguni inkesta egin zaie:

MINISTERIO FISKALA: genero-indarkeriaren hiru lurralde-ordezkarri eta bulego fiskaletako langileak.

EPAITEGIAK. Epaileak —emakumeen aurkako indarkeriaren 4 epaitegi, 7 instrukzio-epaitegi bateragarri, zigor arloko epaitegi 1, betearazpen epaitegi 1, Probintzia Auzitegiko Atal espezializatu 1— eta Justizia Administrazioako letraduak eta emakumeen aurkako indarkeriaren epaitegi-tako eta epaitegi bateragarrietako administrariak.

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA:

- **Emakumearen aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroko** koordinatzailea.
- Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua, **Auzitegi Balorazio Integraleko Unitateetako** 3 lurralde-koordinatzaileak (ABIU).
- **Lantalde Psikosozial Judizialeko** koordinatzailea (LPSJ).
- **Biktimari Laguntzeko Zerbitzuko** koordinatzailea (BLZ).
- BAKZ, ABIU, LPSJ eta BLZetako profesionalak eta langileak.

ABOKATUEN ELKARGOAK: etxeko indarkeria eta sexu-erasoetarako txanda espezifikoen batzordeak, Arabakoak eta Gipuzkoak; Bizkaiko Emakume Letraduen Taldea eta txanda espezifikoko 3 koordinatzaileak.

EMAKUMEEN ELKARTEAK eta aholkularitza juridikoa ematen duten zerbitzuak: AUZOLAN, MUJERES AL CUADRADO, CEAR, CLARA CAMPOAMOR, ARRATS, MUJERES SEPARADAS eta FEKOOR.

10 EMAKUME, indarkeriari aurre egin diotenak, sistema judizialek igaro direnak. Profila: 20 urtetik 60 urtera bitartekoak, hainbat indarkeria-mota jasan dutenak, nazionalak eta atzerritarrak, landa-inguruneetakoak eta hirietakoak, ardurapean adingabeak dituztenak eta ez dituztenak, zenbait baliabide erabili dituztenak (familia elkarguneak —FE— barne), salaketa jarri dutenak eta jarri ez dutenak, aniztasun komunikatiboa eta funtzionala dutenak (desgaitasun fisikoak eta intelektualak dituztenak edo ez), eta elkarreetan parte hartzen dutenak eta parte hartzen ez dutenak.

ARARTEKO instituzioaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoko zuzendaria eta Emakumeen Berdintasuna eta Osotasuna Arloko koordinatzailea.

2. LEGE- ETA ANTOLAMENDU-ESPARRUA. 2007KO EBALUAZIOAREKIKO KONPARAZIOA

Azken urteetan, legeria Europar Batasunaren esparruan eta nazioartean hartutako hitzarmenetara egokitzerakoan, funtsezko berrikuntzak gertatu dira, bai Europan, bai Estatuan, eta, ondorioz, aldatu egin dira 2007an eremu judizialean zeuden jarduera-parametroak, aurreko ebaluazioa egin zenean zeudenak, hain zuzen ere.

Europako Kontseiluaren Hitzarmena, emakumearen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria borrokatzeko eta prebenitzekoa, Istanbulen sinatua (2011ko maiatzaren 11n), eta Espainiak berretsia, 2014ko abuztuaren 1ean jarri zen indarrean. Europaren eremuan lehen aldiz, nazioarteko tratatu lotesle bat egin zen, emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloan, **giza eskubideen urraketa larri horri** aurre egiteko. Emakumeen aurkako indarkeria halakotzat jotzen duen lehen tratatua da Europan.

2012/29/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko urriaren 25ekoa: gutxieneko betekizun batzuk ezartzen ditu biktimen eskubide, laguntza eta babesari dagokienez, eta **genero-indarkeriaren biktimak** espezifikoki identifikatzen ditu.

Estatuan

Sistema judizialak genero-indarkerian izan beharreko esku-hartzea zehaztu eta antolatu duen lege-esparrua **1/2004 Lege Organikoa da, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa**. 2015ean, genero-indarkeriaren emakume biktimen seme-alabak sartu ziren 1. artikuluan.

4/2015 Legea, apirilaren 27koa, Delituaren Biktimaren Estatutuarena. Biktimaren erreparazioa, eskubideak eta laguntza-zerbitzuen babesa lehenesten ditu, indarkeriaren inguruan dauden adingabeak ere biktimatzat ikusarazten ditu, eta neurriak sartzen ditu prozeduretan emakumeak berriz ere ez biktimizatzeko.

Martxoaren 30eko **1/2015 Lege Organikoa** azaroaren 23ko 10/1995 Lege organikoa aldatzen du, Zigor Kodearena⁹, **aldaketak egiten ditu delituen izaerari dagokionez, eta berrikuntzak sartzen motei (jazarpena, kondena urratzea...), kondenari eta betearazpenari dagokienez.**

Bi lege promulgatu dira, neurriak jaso dituztenak **arreta eta babesa hobetzeko amen edo tutoreen aurkako indarkeriaren eraginpean bizi izan diren ume adingabeentzat, bai**

⁹ 1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Zigor Kodeari buruzko azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena.

eta beste indarkeria-modu batzuen biktima izan diren adingabeentzat ere, eta, bereziki, gizakien salerosketaren biktima izan direnentzat:

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, eta 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duena.

7/2015 Legea, ekainaren 30ekoa, gurasoen banaketa edo haustura kasuetako familia-harremanei buruzkoa; lege horretan, baztertu egiten da zaintza partekatua, genero-indarkeriaren kasuetan.

Aldaketak egin dira, halaber, **egoera bidegabe batzuk zuzentzeko; izan ere, erasotzaileari mesede egiten zitzaion (maiz, genero-indarkeriaren esparruan),** pensio, prestazio eta jaraunspenei dagokienez:

- **Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean egindako aldaketak (8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa)**
- **Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legean jasotako aldaketak (15/2015 Legea, ekainaren 2koa).**

EAEko operadore juridikoei dagokienez, hauek dira aldaketa nabarmenenak:

- Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegi bat zabaldu da Barakaldon.
- Genero-indarkeriari buruzko zigor-arloko epaitegi espezifiko bat: Zigor-arloko 6 zenbakiko Bilboko Epaitegia.
- Auzitegi Balorazio Integralerako Unitateak sortu dira, eta abian jarri.
- Familia Elkarguneak (FE) Herri Administrazio eta Justizia Sailaren mende daude organikoki. Herri Administrazio eta Justizia Sailaren eskumenekoak dira 2011z geroztik.

3. EMAITZAK ETA GOMENDIOAK

3.1. ARRETAREN HELMENA

Aurkezten diren datuek **jarduera judizialaren** eta **operadore juridikoen** jardueraren ikuspegia ematen dute: Ministerio Fiskala, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Euskadiko Koordinazio Zentroa, Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua eta etxeko indarkeriarako eta/edo genero-indarkeriarako **txanda espezifiko**a, 2012tik 2015era bitartean.

Datu-bilketa eta estatistikak egiteko modua aldatu egin da, eta horrek zaildu egiten du **2007. urtean egindako ebaluazioan jasotakoekin konparatzea. Ahal izan den kasuetan** baino ez da egin konparazioa.

Iturriak¹⁰

1. Memoriak: Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua, Ministerio Fiskala eta Biktimari Laguntzeko Zerbitzua.
2. Datuen galdetegi espezifikoak: hiru abokatu-elkargoak.
3. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia: epaitegien jarduera.

3.1.1. Epaitegiak: 2007-2015 jarduera

📦 EAEko epaitegietan zuzenean sartu diren prozedura penalak:

- 2015. urtea: 5.024, 2007an baino % 3,66 gutxiago (5.215 prozedura).
- Azken lau urteetan (2012-2015), epaitegi hauek kudeatu dituzte gai-bolumen handiena (handienetik txikienera): Bilbao (1.104 gai), Barakaldo (684), Gasteiz (642) eta Donostia (607).

📦 EAEko barruti judizialetan jasotako salaketak:

- Nabarmentzekoa da **Irungo** barruti judiziala: salaketa-bolumena **% 146 handitu** da **2007az geroztik** (65 salaketatik 160ra), eta **% 185**, 2012 urtearekin alderatuta (56 salaketatik 160ra).

3.1.2. Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroa (EIEKZ): 2014-2015 jarduera¹¹

📦 Ebazpen judizialak, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei buruzkoak. 2014an eta 2015ean emandako ebazpenak, bai EAEko epaitegietan emandakoak, bai bizilekua EAEn duten biktimei buruz beste autonomia-erkidego batzuetan emandakoak.

Ez dago daturik, 2007ko datuekin konparatzeko, artean ez zegoelako funtzionamenduan Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ), eta funtzio hori hark du izendatuta¹².

- **Genero-indarkeriari buruzko epaiak, 2014tik 2015era bitartekoak:** 3.376. 2015ean, epai **kondenatzaileak % 71,7** izan ziren, 2014an baino apur bat gutxiago (**% 77,1**).

¹⁰ Emakumearen aurkako Indarkeriaren Koordinazio Zentroaren kasuan, Informazio Sistemen Lantaldearen lanaren esparruan Emakundera alde aurretik bidalitako informaziora lotzen da lantalde psikosoziala. Talde hori Erakunde Arteko II. Akordioaren mende dago (etxean tratatu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakunde arteko Akordioa). Lantalde Psikosozial Judizialak jasotako datuak ez datoz bat ebaluazioan honen esparruan ustiatutako aldagaiekin, eta, ondorioz, ezin izan dira sartu.

¹¹ 2013. urtean, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Euskadiko Koordinazio Zentroaren egitura eta funtzionamendua arautu zen, Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren 2014ko martxoaren 31ko Aginduaren bidez (EHAA, 2014-04-30); beraz, aztertu diren datuak 2014tik aurrera lortutakoak dira.

¹² Gobernu Kontseiluaren 2003ko abenduaren 9ko Erabaki batez, Lurralde Koordinazioko Zentroaren funtzioa Biktimari Laguntzeko Zerbitzuetan (sortuta zeudenetan) finkatu zen Euskadin, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren delituei dagokienez.

- **Babes-aginduen eskabideei buruzko ebazpen judizialak:** 1.685, EAEn bizi diren emakumeenak. Ebatzitako agindu horien **erdia baino gehiago** ukatu egin ziren; aldiz, **onartu egin ziren % 46,8**.

3.1.3. Ministerio Fiskala: 2012-2015 jarduera

📦 **Hasitako prozedura penalak** 26.970. Beheranzko joera dago (% 3,9 egin du behera 2012tik 2015era bitartean).

2012tik aurrera, prozeduretan goranzko joera izan duen lurralde bakarra Araba izan da: % 7,5 egin du gora.

📦 **Gailu elektronikoak**, kontrol telematikoa egiteko, biktimarengandik urruntzeko kautela-neurri edo -zigorren kasuetan eta biktimarengana hurbiltzen dela egiaztatzen duen tresna tekniko bat erabiltzea beharrezkoa dela ebazten den kasuetan. **Beheranzko joera du:** 2015ean 2012an baino % 50,8 gutxiago erabili da, eta 2013an baino % 41,5 gutxiago.

📦 **Babes eta segurtasunerako kautela-neurriak.** Joera desberdina da genero-indarkeria izan ala etxeko indarkeria izan:

- **Genero-indarkeriaren arloan gorantz egiten ari da 2013az geroztik:** % 22,1 egin du gora, nahiz eta Gipuzkoa den 2012tik goranzko joera konstantea izan duen lurralde bakarra, % 43,1eko gehikuntza izan baitu.
- **Etxeko indarkeriaren kasuetan, babes eta segurtasunerako kautela-neurriek beheranzko joera dute EAEn.** 2012tik gaur arte, % 21,4 egin du behera. Lurralde guztietan ikusten da beheranzko joera hori: Araban % 51,7 egin du behera, Bizkaian % 11,5 eta Gipuzkoan, % 26,4.

3.1.4. Biktimari Laguntzeko Zerbitzua: 2012-2015 jarduera

📦 2015ean, zerbitzu horrek 2.674 lagun **artatu ditu** EAEn, azken urteetako baino apur bat gutxiago: 2014an baino % 10,9 gutxiago eta 2012an baino % 25,6 gutxiago.

- 2014an baino arreta gehiago eman dituen lurralde bakarra Gipuzkoa da: % 12,1 gehiago.
- EAEn azken urteotan artatu diren pertsona guztien % 82,8 emakumeak ziren¹³.

📦 Espediente bakoitzari delitu bat edo batzuk lotzen zaizkio, Zigor Kodearen delitu-moten sailkapenaren arabera.

- Azken urteotan artatu diren emakumeen espediente guztien **% 62,9 tratatu txarren** kategorian sartuta duden delituei lotutakoak dira; **% 8,3, askatasunaren kontrako delituei lotutakoak** eta **% 6,7, sexuaskatasun eta -ukigabetasunaren kontrako delituei lotutakoak**¹⁴.

¹³ Profil soziodemografikoei buruzko informazioa 2014tik geroztikoa da.

¹⁴ Informazio hori 2014. urteaz geroztik dago erabilgarri.

3.1.5. Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutua: 2007-2015 jarduera.

Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutuak (AMEI) **espediente judizialen 5 mota erregistratzen ditu , genero-indarkeriarekin, etxeko indarkeria edo familia barruko indarkeriarekin eta/edo sexu-indarkeriarekin lotuta:** genero-indarkeriagatiko, etxeko indarkeriagatiko edo sexu-indarkeriagatiko erasoetatik etorritako espedienteak eta genero-indarkeriagatiko edo etxeko indarkeriagatiko espediente psikiatrikoak.

AMEIren memorieta dauden estatistikek ez dute uzten biktimaren eta biktimarioaren sexua bereizten, non eta Lege Integralaren kontzeptualizazioari jarraikiz genero-indarkeriaren arloan egindako balorazioak ez diren¹⁵; izan ere, lege horretan, definizioak berak dakar biktima emakumea izatea eta erasotzailea gizona. Horrela, etxeko indarkeriaren epigrafean kasu batzuk jaso dira non indarkeria emakumeak baliatzen duen gizonaren kontra; hala ere, urriak dira halako kasuak¹⁶.

- ☞ Genero-indarkeriarekin, etxeko indarkeriarekin eta/edo sexu-indarkeriarekin lotutako espediente judizialak, 2015ean: 2.991, **2007an baino % 49 gehiago** (2.002 espediente). Hala ere, beherantz egin du azken urteetan (2012-2015): 2012tik % 2,7 gutxitu da (84 espediente gutxiago) eta 2014tik, % 6,4 (196 espediente).
 - 2015ean, genero-indarkeriarekin, etxekoarekin edo familia barrukoarekin eta/edo sexu-indarkeriarekin lotutako espediente judizialak, zuzendariordeztaka: 517 Araban, 1.361 Bizkaian eta 1.113 Gipuzkoan.
 - Horrelako espedienteak 2015ean guztira egindakoen % 17,4 dira Araban, % 12,2 Bizkaian eta % 20,1 Gipuzkoan.

3.1.6. Tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktimei letradu-laguntza emateko txanda espezifikoak: 2007-2015 jarduera

- ☞ **Arreta-bolumena.** 2015. urtean, 3.426 emakume izan ziren. 2007. urteari buruzko arreta-datuak (3.146) ikusita, **jarduera % 8,9 handitu da.**
 - Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak dituzten barruti judizialetan erabiltzaileen % 68,1 biltzen da: Bilbao (% 22,0), Donostia (% 16,5), Gasteiz (% 14,9) eta Barakaldo (% 14,6).
- ☞ 2015ean **egindako esku-hartzeen ezaugarriak.** Esku-hartzeen % 77 honela banatzen da: biktimaren deklarazioan laguntzea (% 27,1), Ministerio Fiskalak esku hartzeko eskaera (% 21,9), babes-agindua (% 14,6) eta salaketa aurkeztea (% 13,2).

¹⁵ 1/2004 LEGE ORGANIKOA, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa.

¹⁶ Familia barruko indarkeria, bikotekidearena kanpo, Bizkaiko ABIUn. AMEI. Bizkaiko Zuzendariordeztza. G. Portero, A.E. Abasolo, M. L. de Francisco, A. Moreno. Vitoria- Gasteiz, 2015.

3.2. ONDORIOAK

3.2.1. Sistema judizialaren egoera eta efikaziari buruzko orokorrak

- ☒ 2007az geroztik asko **hobetu da** eremu anitzetan: Europako Erkidegoko lege-esparruan, genero-indarkeria giza eskubideen urraketatzat hartu da, eta estatuko lege-esparruan, indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak zuzeneko biktimatzat hartu dira (besteak beste); eremuko profesionalek kontzientziazio eta prestakuntza handiagoa dute; beste operadore juridiko batzuk sortu dira, hala nola ABIUak eta EAIE berri bat; eta letradu-laguntzaren doakotasunaren irismena handitu egin da, eta gehitu, bai eta prestakuntza ere (besteak beste). Baina hobekuntzek ez dute berekin ekarri behar beste baliabide ekonomiko, hobekuntzak erabat eraginkorrak izateko.
- ☒ Operadore juridikoen **giza baliabideak eta baliabide materialak**, batez ere epaitegietan, ez dira nahikoak ondo funtzionatzeko eta arazoari behar bezala erantzuteko, eta, ondorioz, lan-gaikuntza sortzen da, baita emozionala ere, eta horrek ondorio garbiak ditu prozesuetan, erantzunean eta biktimen bizipenean.
- ☒ Oraindik ere **beharrezkoa da profesionalen gaikuntza eta prestakuntza zabaltzea eta areagotzea**; izan ere, eremu horretan gabezia esanguratsuak detektatu dituzte, bai operadore juridikoen, bai esku-hartzeko beste eremu batzuek eta erabiltzaileek.
- ☒ Ondorengo ataletan esaten den bezala, **kontraesanak eta oztupoak daude: ezarritako prozeduretan eta lege-esparruan sortzen dira**, eta epaileek jarduteko duten gaitasunaren kalterako dira.

3.2.2. Lege-esparrua betetzeko mekanismoak, estaldura eta ikuspuntua

- ☒ Sistema judiziala batez ere biktimarioen eskubideak bermatzera bideratuta dago, daukagun tradizio penalaren ondorioz. **Erantzun judiziala ez da biktimaren ongizatean oinarritzen, prozedura automatizatuan bertan baizik**; gainera, epaitegi bakoitzak norbere prozedurak ditu. 2007ko egoerarekin konparatuta, esan daiteke nabarmen egin dela aurrera **genero-ikuspuntua txertatzen**, delitu berriak sartuta eta —hauxe nabarmenena— indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak zuzeneko biktimatzat hartuta, baina, hala ere, ezin esan daiteke sisteman sartuta dagoenik, biktimak lekuko soilak balira bezala tratatzen baitira.
- ☒ Genero-indarkerian aplikatzen den estrategiak **emakumeak izan ditu ardatz, eta horrek esan nahi du prozeduretan eurek dutela karga eta erantzukizuna**. Lege Integralak aitortutako genero-indarkeria, ordea, erasotzailea argi identifikatuta daukan delitu bakanetakoa da.
- ☒ Zigor-arloko sistema judizialak ere ez du bermatzen biktimak parte har dezakeenik ikerketa bat edo prozedura judizial bat abiatu behar den ala ez erabakitzen: **edo salatzen du, edo ez du salatzen**, eta **ez dago babes judizialerako neurririk, baldin eta alde**

aurretik salaketarik jartzen ez bada. Baina kasu hauetan frogatu beharren karga erraza izaten ere ez du laguntzen, betekizun batzuk eskatzen baititu, zorrotzak eta interpretagarriak, biktimaren deklarazioa egozketa-froga nahikoa izan dadin. Izan ere, emakume biktimak kondenatu egiten dira praktikan, lesioak eta mehatxuak bi alderdien artean egiten direnean, **defentsa propiorako eskubidea kontuan hartu gabe**.

☞ **Erasotzaileek kargu ematea teorian ere ez da jasotzen, eta biktimenzako kalte-ordain ekonomikoa ia ez da kontuan hartzen.** Biktimek ez dute konpentsazio ekonomikorik jasotzen zerbitzu juridikoak ukatzen edo murrizten zaizkienean eta atzeratzen direnean, ez eta eremu judizialean zabarkeriaz jokatzeko denean ere. Egun, **ez dago erreparazio-mekanismo publiko eraginkorrik**.

☞ **Doako defentsa**, ofiziozko txandan, **irizpide murriztaileekin aplikatzen da arlo zibilean**, esate baterako banaketa eta dibortzioetan, familia eta adingabeen beste gai batzuen artean. Antza denez, genero-indarkeriaren biktimen ehuneko handi bat ez da halakotzat ikusten banaketa eta/edo dibortzio prozesuetan, eta, ondorioz, ez dute tratamendu espezifikorik jasotzen, eta ez dute aukerarik izaten beraientzat dauden baliabideetara jotzeko.

3.2.3. Oztopoak prozeduretan

☞ **Urratzeak eta babes-aginduak: urruntze-neurriak urratzen badira**, "soilik" erasotzailea presente dagoelako eta ez beste delituren bat egin duelako, jakinean egonda ere hori zeinen larria izan daitekeen eta horrek zer nolako eragina izan dezakeen biktimengan, ez da beste prozedurarik abiarazten, babes-neurri bat eman ahal izateko.

Gainera, kasu hauetan, **babesten den ondasun juridikoa Justizia Administrazioa da, eta horrek biktima lekuko gisa kokatzen du**, ez alderdi kaltetu gisa: baliteke biktimek abisurik ez jasotzea erasotzaileei hirugarren gradua eta baimenak ematen zaizkienean eta kaleratzen direnean.

Espetxeratzea agintzen bada, babes-agindua ez ezik, urruntze-agindua ere "agortuz" joaten da, erasotzailea kartzelan dagoen bitartean. Praktikan, **ez dago desberdintasunik erasotzailea urraketa bategatik kartzelan egotearen eta genero-indarkeriarekin zerikusirik ez duen delitu bategatik egotearen artean**.

☞ **Deklaratzeko lekapena:** Prozedura Kriminalaren Legearen 416. artikulua kontrara ez deklaratzeko aukera ematen du, baldin eta lekukoaren eta akusatuaeren artean ahaidetasuna badago, eta horrek distortsioak sortzen ditu genero-indarkeriaren kasuetan. Normalean egozketa-froga biktimaren deklarazioan funtsatzen denez, biktima isilik geratzeak kondenatua absolbituta geratzea ekar dezake sarritan.

Deklaratzeko lekapena baliatzeko kausak hainbat izan daitezke: tratu txarrak ematen dituenaren mehatxuak edo hertsapenak jasotzea berriz ere, hari beste aukera bate ematea erabakitzea, berriz elkarrekin bizitzea erabakitzea, mendekotasun emozionala, ekonomikoa, etorkizunari begira beldur izatea, erasotzailearen erreakzioaren beldur izatea, etab. Kontraesana da pribatutasuna desagertzea ekarri duten delituetan **biktimaren esku uztea**

tratu txarren zigorra, zeren eta baliteke, ikustaldian, biktimak alde aurretik deklarazio bat egin behar izana eta/edo epaitegiak delitua egon dela frogatzen duten elementuak izatea (esate baterako, atestatua, besteak beste).

- ❏ **Biktimarioaren bisita-eskubideak:** mantendu egiten dira erasotzaileek amaren zaintzapean adingabeak bisitzeko erregimenak, aitik urruntze-agindu bat izanda egiten baitu bisita, elkargune batean bada ere; hori arriskutsua eta inkoherentea da, zeren eta, legearen arabera, adingabearen interes gorena lehenetsi behar da aitaren edo erasotzailearen eskubidearen gainetik, eta, berriz ere legearen arabera, adingabeak erasotzaileak baliatzen duen indarkeriaren zuzeneko biktimak dira.

3.2.4. Epaitegien egoera

Egungo sistemaren ondorioz, **judizialki oso sakabanatuta daude kasuak**. Eskumenak epaitegi motaren arabera banatzea **ez dago pentsatuta genero-indarkeriaren kasuetarako:** horiek oso ezaugarri espezifikoak eta berezituak dituzte, eta auzi ugari biltzen dira horietan, askotarikoak.

- ❏ Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiek eta epaitegi bateragarriek eskumen **askoz gehiago hartu dituzte genero-indarkeriaren arloan**, horietan sartu direlako zenbait delitu, hala nola urratzeenak, ohorearekin, intimitatearekin edo norbere irudiarekin lotutakoak, "ziberjazarpena" eta beste batzuk —esaterako, irain egitea eta sekretuak agerraraztea—, betiere, biktima ustezko erasotzailearen bikotekidea edo bikotekidea izan bada.
- ❏ **Desoreka handia dago arlo horretan aritzeko dauden langile kopuruaren eta benetan egiten duten jarduera-mailaren artean.** Eta ez bakarrik funtzionario kopurua egokitzeari dagokionez, baizik eta bajak eta baimenak betetzeko prozesu efikazei dagokienez ere bai. **Gaien tramitazioa luzatuz gero**, gerta liteke kausa bat artxibatzea, hura instruitzeko epea igaro delako. Bilbon izan ezik, non emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegi bi dauden, gainerako barruti judizialeetan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak **etengabeko guardian** daude, eta, horregatik, ginkarga handia sortzen da, baita lana antolatzeko zailtasun handiak ere.
- ❏ **Instalazioei** dagokienez, oro har, ez dago nahikoa leku itxarongelak behar bezala antolatzeko eta behar beste komun jartzeko, ez biktimen intimitatea eta babesaren bermatzeko adina. Horrek ibiltzeko askatasuna mugatzen dio biktimari, baldin eta ikertua atxilotuta ez badago. Gabezia horiengatik, ahalegin handia egin behar dute bai epaitegietako funtzionarioek, bai letradu-laguntzak: beste laguntza "gehirri" batzuk ematen dizkiete biktimei, beren egitekoez aparte, eta, gainera, horretarako behar diren baldintzarik gabe.

Zerbitzuak egoitza judizialean ematen dituzten operadore juridikoak (hala nola LPSJ, ABIU eta BLZ) dauden instalazioetan, bereziki nabarmentzekoa da Gasteizko Justizia Jauregian dagoen ABIUa, non ezinezkoa den erabiltzaileei gutxieneko konfidentzialtasuna ere ematea.

Horren haritik, Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Gasteizko Epaitegiaren kokapenak besteek baino gabezia gehiago ditu, biktimei, gutxienez, intimitatea eta, bereziki, segurtasuna bermatzeko.

3.2.5. Operadore juridikoen eta letradu-laguntzako profesionalen egoera

Presio eta erantzukizun handiarekin lan egiten da. Genero-indarkeriaren biktimekin lan egiteko, konpromisoa eta enpatia behar dira; gainera, egoerak konplexuak eta segurtasunik gabeak izaten dira. Horrek guztiorrek **higadura-maila handia** eragiten du. Sistemak epaitegietan diharduten profesionalen esku uzten du biktimen segurtasuna eta ongizatea bermatzeko erantzukizuna, eta funtzio hori ez dago jasota haien zereginen artean, eta, beraz, ez dute horri buruzko ez ikasketarik ez prestakuntzarik, ez eta aitortza-sistematik, motibaziorik eta/edo zaintzarik.

3.2.6. Gaikuntza eta prestakuntza

☞ Azterlanean parte hartu duten operadore juridikoetako profesionalen balorazioetan, **ikuspuntuari eta genero-indarkeriari buruzko ezagupen handiagoa dagoela** ikusi da, 2007an egindako ebaluazioaren emaitzekin konparatuta. Profesionalen kolektiboek eskaintza handiagoa ikusten dute eremu honetan, eta prestakuntzarako ekimenak ere abiarazi dituzte euren kabuz, duten interesaren erakusgarri. Baina biktimen, letradu-laguntzaren eta beste operadore eta laguntza-agente batzuen ustez, gabeziak daude, eta batzuetan, gabezia handiak: tratu desagokiak ematen dira, ez da ulertzen arazoaren norainokoa eta ez da ulertzen erabakiek zer ondorio izan ditzaketen biktimengan; izan ere, erabakiek kasu batzuetan larritu egiten dituzte egoerak eta zaildu egiten dute babesa, oneratzea eta normalizazioa, eta horiek guztiak dira beharrezkoak indarkeriarik gabe bizitzeko. Sistema judizialetan eta beste laguntza-zerbitzu batzuetan diharduten langileak asko eta askotarikoak dira, eta, ondorioz, etengabeko ahalegina egin behar da prestakuntza-eskaintza zabaltzeko eta areagotzeko.

☞ Prestakuntza espezifikoa izatea ez da betekizuna epaitegietako lanpostuetara iristeko edo horietan jarraitzeko (Justizia Administrazioaren letradua, administrariak...), epaileentzat izan ezik; izan ere, Botere Judizialaren Lege Organikoan 2009an egindako erreformaren ondorioz, genero-indarkeriari buruzko prestakuntza **nahitaezkoa** da lanpostua izateko emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan, zigor-arloko epaitegi espezializatuetan eta probintzia-auzitegietako atal penal eta zibil espezializatuetan.

Hala ere, epaitegi bateragarrietan, prestakuntza hori ez da nahitaezkoa horietara iristen diren epaileentzat.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak genero-indarkeriari eta arlo horretan izandako berrikuntzei buruz urtero antolatzen duen ikastaroak indarkeriaren arloko fiskal delegatuek egiten dituzte soilik, eta ez dirudi nahikoa denik.

Beharrezkoa da, halaber, genero-indarkeriari buruzko prestakuntza Lantalde Psikosozial Judizialerako eta Auzitegi Balorazio Integraleko Unitateetarako ere bideratzea, ez baita kontuan hartzen betekizun moduan.

3.3. SISTEMA JUDIZIALA ETA LETRADU-LAGUNTZA HOBETZEKO GOMENDIOAK

Sistema judiziala erabat eraginkorra izango bada, ezaugarri hauek izan behar ditu:

- Legeak promulgatu eta haiek betetzen direla bermatu.
- Emakumeak eta umeak erasotzaileen indarkeriatik salbu mantendu, eta prebentzioari heldu.
- Erasotzaileak erantzuleztat jo ondorio guztietarako.
- Kaltearen erreparazio eraginkorra egin.

Bi alderdi zeharkako identifikatzen dira, sistema judizialaren eta letradu-laguntzaren erantzunean erabat eragiten dutenak:

1. Lege-esparrua eta horrek dituen mekanismoak legeak benetan betetzeko.
2. Berdintasunari eta genero-indarkeriari buruzko prestakuntza espezializatua.

3.3.1. LEGE-ESPARRUA ETA HURA BETETZEKO MEKANISMOAK

Eremu horrek gainditu egiten ditu ebaluazio honen eskumenak, gerora kontuan hartzekoak izan daitezkeen gomendioak emateko; hala ere, kontuan hartuta nolako garrantzia duen eta zer ondorio dakartzan sistemaren erantzun eta eraginkortasunerako, beharrezkotzat jotzen da hura islatzea.

GOMENDIOAK

Ulertu behar da **genero-indarkeria giza eskubideen arazo bat dela** eta emakumeen eta indarkeriaren eraginpean dauden adingabeen oinarrizko eskubideak urratzen dituela. Horrek esan nahi du erantzun judiziala biktimaren ongizatean oinarrituta antolatu behar dela: haren babesari eman behar zaio lehentasuna, eta ekimena sistemari egokiarazi behar zaio, eta prozesuaren karga, berriz, biktimarioari.

Halaber, Istanbulgo Hitzarmenaren sinaduraren ostetik gaiari buruz onartutako araudiaren arabera, **Lege Integralean sartu egin behar lirateke emakumeen aurkako indarkeria-modu egun jaso gabeak**, hala nola sexu-indarkeria (egileak biktimarekin afektibitate-harremanik ez duenean edo eduki ez duenean), ezkontza behartua, sexu-esplotaziorako emakume-trafikoa, emakumeen mutilazio genitala, eta behartutako abortuak eta esterilizazioak.

Dagoen lege-esparruko aukeren barruan, ondoren datozen puntuak operadore juridiko bakoitzaren eskumenetarako dira:

JARDUERA JUDIZIALA

- Oro har, garrantzitsua da kontuan hartzea genero-indarkeriaren egoerek **oso ezaugarri espezifikoak dituztela eta konplexuagoak direla** arlo penalean, zibilean, ekonomikoan, emozionalean..., beste delitu batzuen aldean, eta, ondorioz, egoera horiei heltzerakoan kontuan hartu behar dela hori guztiori.

Biktimen eta laguntza-agenteen esperientzietan oinarrituta, egiaztatu da askotan ez dela ikuspuntu hori baliatzen, eta tratua eta prozedurak ez direla egokiak horren egoera konplexu eta zailtarako. Alderdi hauek nabarmentzen dira:

- **Genero-indarkeriaren biktima batek izan beharreko portaerari buruzko estereotipoak** berrikusi behar dira, zeren eta euren zaurgarritasuna erakusten ez dutenek sarritan ez dute tratu bera jasotzen, eta ez zaie sinesgarritasun bera ematen.
 - Kontuan hartu behar da tratu txarrak bizi beharrak dakartzan inpaktuak eta ondorio psikologikoez (autoestimua, erasotzaileari men egitea, antsietatea, isolamendua...) **sarritan murriztu egiten dutela biktimak bere bizipenak eta arazoak egoki kudeatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna** (batik bat tratu txarrak luzaroan eman badira); are gehiago judizio azkarretan, zeintzuk indarkeria-agerraldi bat gertatu eta ia berehala egiten baitira.
 - Halaber, saihestu egin behar da biktimaren deklarazioa bere kontrako froga bihur dadin, hori gertatu baitaiteke biktima deklarazio bati **aurre egiteko behar bezala prestatuta dagoela bermatu ezean**.
 - Berrikusi egin behar dira **babes-aginduak emateko irizpideak eta horien iraupena**. Biktimek funtsezkotzat jo dute hori, indarkeria-egoeretatik ateratzeko eta bizitza antolatzen hasi ahal izateko, eraso berri batzuetatik babesteko segurtasun gutxieneko bat dutela; izan ere, kontuan hartu behar da babes-aginduak ukatzeko edo ez onartzeko joerak gorantz egin duela argiro, azken 4 urteetan.
- Orobat berrikusi behar dira **gainerako kautela-neurriak, genero-indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren arloko babes eta segurtasunerakoak** (datuen babes, bizilekutik ateratzea, urruntzea, komunikazioen etendura, guraso-ahalaren edo bisita-erregimenaren etendura edo armak eramateko eskubidea). Neurri horiek, oro har, gero eta gutxiago hartzen dira EAEn. Garrantzitsua da kontuan hartzea segurtasun-gabeziaren egoera eta kalteak, benetako babesik ez edukitzeak eta seguru ez sentitzeak sortzen dituenak, bai biktimengan, bai haien erabakietan.
 - Babes-neurriei dagokienez, **gailu elektronikoen, gailuen eta bizkartzain-zerbitzuaren esleipena berrikusteko beharra nabarmendu behar da**; izan ere, elementu horiek ezegonkortasun handia eragiten dute, eta berriz biktimizatzen du biktima, eta batzuetan, gailuen kasuan, biktimarioak biktima jazartzen jarraitzeko laguntza izaten dira, eta, biktimentzat, berriz, estres-iturri eta deserosotasun aniztetarako bide. Prozesua

biktimarioari egokiarazteko printzipioak ekarri behar luke neurri horiek biktimarioari zuzentzea, eta ez haren biktimei.

- **Absoluzio-epaiak eta behin-behineko largespenak** (froga faltagatik) gero eta gehiago ematen dira (bigarrena, batez ere) azken urteetan, eta horrekin batera, genero-indarkeria eta sexu-erasoak ez dira gutxitzen; are gehiago, gehitu egin dira gizarte-arretaren eremuan ikusgarri diren kasuak ere. Kausak ezezagunak diren arren, badira alderdi batzuk egoera horretan eragin dezaketenak eta berrikusi beharrekoak direnak:
 - Kontuan hartu behar da biktimaren **defentsa-eskubidea**, eta saihestu tratu txarren edo erasoen biktima diren emakumeak abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren gerizpetik kanpo gera daitezten edo, are gehiago, auzipetuak izan daitezten, beren buruaren defentsan erasoari erantzuten diotenean (1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzkoa).
 - Giza eskubideei, generoari eta ahalduntzeari buruzko prestakuntza-baliabideak ezarri behar dira, biktimekin kontaktuan jartzen diren langile guztientzat.
 - Berrikusi egin behar dira **beste organismo batzuen txosten profesionalen balorazio-irizpideak** (Osakidetzarenak, ikastetxeetako txostenak...), eta kontuan hartu frogaldian, jakinda zeinen zaila den frogak lortzea (indarkeria edo tratu txar psikologikoa denean, bereziki).
 - Horren haritik, nahiz eta peritu-txostenen (AMEI, LPSJ) ondorioak lotesleak ez izan, **behar diren beste froga eman behar lukete indarkeria-egoera osotasunean baloratzeko**; horrekin irizpide gehiago egongo lirateke, baldin eta ikerketak eskatuko balira ez bakarrik gertakari puntaletarako, **baizik eta, baita ere, genero-indarkeria egoera baten kronikotasuna bilatzeko** eta/edo zenbat denbora iraun duen eta zer mota egon den jakiteko.
 - Frogatzearen pisua guztia ez zaio biktimari eman behar, eta berrikusi egin behar da delitu-tipologia honetarako komeni ote den ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen aurka deklaratzeko lerdespina eta aitortu izanaren aringarria kentzea.
 - Nabarmendu beharrekoa da egun epaileari edo fiskalari egokitzen zaiola **ikerketak proaktibo** bat egitearen erantzukizuna, behar diren frogak lortzeko; horregatik, zorrotzago azpimarratu behar litzateke prozesu hori.
 - Genero-indarkeriaren arau-esparruan ez dira jasotzen desgaitasunen bat (fisikoa, sentoriala edo psikikoa) duten emakumeek jasaten dituzten beste indarkeria eta tratu txar modu batzuk; beraz, **peritu-txostenak eskatzerakoan**, beharrezkoa litzateke adierazle espezifiko hauek kontuan hartzea: **ez zaintzegatiko indarkeria, gainmedikazioa edo medikazio desegokia, indarkeria ekonomikoa, etab.**
- Beharrezkoa da tratamendua berrikustea **ebazpen eta neurri judizialak urratzen diren kasuetan**, hori baita genero-indarkeriaren hirugarren mota, eta kontuan hartu behar da

urratze horiek eragina dutela biktimen eguneroko bizitzan, lan-aukeretan eta bizitza berregin eta normalizatzeko gaitasunean:

- Ahal izanez gero, erraztu egin behar litzateke biktimak presentzia eta erabakitze gaitasun handiagoa izatea, eta ziurtatu egin behar litzateke biktima ere jakinaren gainean jartzea, epean eta forman, babes-neurriak urratzeagatiko biktimarioak kartzelatik ateratzen direnean eta baimenak ematen zaizkienean; inplikatura dauden operadore juridikoekin egin behar litzateke hori (**esaterako, kartzelatik ateratzeagatiko prebentzio-komunikazioen zerbitzua**).
 - Besteak beste, babes- eta urruntze-aginduen iraupena ezartzeko irizpideak berrikusi behar dira, **biktimarioa espetxean dagoen aldia ez dadin kontuan hartu neurri zehatz horietarako**; izan ere, egoera hori arazo-iturri izaten da, eta biktima askok baloratzen du horiek berrikustea.
 - Ezarri beharra dago ezen biktima urratzearekin ados egotea ez dadila aringarri izan biktimarioaren erantzukizunean.
-
- **Legeak espresuki debekutzen du bitartekaritza**; hau da, ezin da maila berean jarri biktima eta biktimarioa, genero-indarkeriaren auzian daudenak ez baitira berdinak, ez erantzukizunari dagokionez, ez zaugarritasunari dagokionez. Hala ere, ohikoa da konponketa hori esparru kontrolatu batetik kanpora gertatzea. Saihestu egin behar lirateke egoera horiek, betiere kontuan hartuta biktimek dutela babesgabetasun eta zaugarritasun handiena.
 - Biktimen babesa indartu egingo da baldin eta segurtasun-indarrei eta polizia-kidegoei jakinarazten bazaie epaitegietako agerraldietan aurkeztutako salaketan zerranda osoa; hartara, salaketak jasota geratuko dira **Segimendu Integraleko Sistemari**, eta biktimak zer nolako arriskua duen baloratu ahal izango da.
 - Sistemaren fokua biktimaren babesean eta ongizatean jartzeak esan nahi du hura **berroneratzen eta erreparatzen saiatu beharra dagoela, eta erraztu egin behar zaiola jasandako kalteengatik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea**. Alderdi hori ez da oso garrantzitsua izaten epaietan, nahiz eta kontuan hartu behar litzatekeen ezen, oro har, bizitako tratu txarren eta ondorengo bizi-egoeraren eta egoera ekonomikoaren ondorioz, kasu gehienetan, oztopo handiak egoten direla lanean eta lanbidean garatzeko aukera baliatzeko, eta kasu batzuetan, ezereztu ere egiten dela aukera hori. Seme-alabak daudenean, tratu txarren emailearekiko mendekotasun ekonomikoa, askotan, kausa objektiboa izaten da egoera ez apurtzeko.
 - Publikoki eta gogor gaitzetsi behar da emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegietan aurkeztu diren salaketa asko faltsuak direla edo prozesu-estrategia bategatik aurkeztu direla esatea, ideia horrek hutsaldu egiten baitu delinkuentzia mota hori, eta hori oso da arriskutsua.

FISKALTZA

- Garrantzitsua da azpimarratzea **ez dela beharrekoa** biktimak salaketa aurkeztea genero-indarkeriagatiko prozedura bat zabaltzeko, fiskalaren erantzukizuna baita prozedura aurrera eramatea. Hala ere, ikusi da beharrezkoa dela eremu horretan proaktibitate handiago izatea.
- Nahiz eta legez fiskalak ez duen zertan **biktimarekin eta biktimarioarekin aldez aurretik kontakturik izan behar**, ikusi da hori egin den kasu bakanetan, hobetu ulertu izan dela egoera globala, eta, ondorioz, ikerketa sakonagoak egin izan direla. Hori nola egin eta horretarako zer baliabide behar diren zehaztu behar litzateke, eta genero-indarkeriaren kasuetan ohiko praktika moduan erabili.
- Delitu horren eskumena emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiarena ez denez, **sexu-erasoetako** biktimek ez dute genero-indarkeriaren beste tipologietarako dauden baliabideen arreta jasotzen. **Balorazio eta arreta psikologikoa**, baita **letradu-laguntza** ere, erabakigarriak dira biktimentzat, baina, nahiz eta txanda espezifikoaren eskumenekoak izan, ez da ohikoa izaten horiek eskatzea kasu horietan. Fiskaltzak rol erabakigarria izan dezake **zerbitzu horien presentzia eskatzen badu** sexu-erasoen kasu guztietan.
- Fiskaltzak, bere ikerketa lanean, salatutako azken gertakaria baino gehiago ikertu behar du, lehenago beste gertakaririk egon ote den edo beste inguruabarren batzuk dauden, ikertuaren arriskugarritasuna argitzeko balio dutenak.

LETRADU-LAGUNTZA

- **Deklarazioaren aurreko unean letradu-laguntza izatea** faktore erabakigarritzat hartu da ondo antolatutako deklarazioak egiteko, deklarazioa ondo antolatzea lagungarri izaten baita prozesua errazteko eta egoera ulertzeko. Gainera, faktore horren eraginez, gero eta salaketa gutxiago erretiraten dira, eta judizioetan ez-pertsonatzea ere gutxiago gertatzen da.
- Judizioa egin baino **lehen prestaketa-lana egiteko ere eskatzen da**; izan ere, letradu-laguntzak beharrezko duen informazioa lor dezake, eta biktimak, berriz, informazio gehiago izan dezake bizi beharko duen egoerari buruz, eta prestatuago egongo da judizioan parte hartzeko eta egitateak eta premiak azaltzeko, egokiago eta efikazago.

3.3.2. GENERO-INDARKERIARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA

Genero-indarkeriaren konplexutasunari eta behar espezifikoei erantzun ahal izateko, emakumeak berriz ere biktimizatzea saihestu behar da, prozedura judiziala hobeto garatu behar da, eta kolektibo profesional guztientzat bideratu prestakuntza, bai orokorra, bai herritar-talde espezifikoak ardatz hartzen dituenak, hala nola adingabeak, aniztasun funtzionala dutenak (sentsoriala, fisikoa, intelektuala eta gaixotasun mentala) edo beste kultura-talde minoritario batzuetakoak direnak.

GOMENDIOAK

- Operadore juridikoentzako eta arlo judizialera bideratzen diren gizarte-zerbitzuentzako prestakuntza planteatzeko, ikuspegi hau baliatu:
 - Emakumeen eta adingabeen giza eskubideen defentsa, genero-indarkeriak horien aurka egiten duenez gero.
 - Emakumeen ahalduntzea, lan-estrategia gisa eta arreta profesionalaren jomuga gisa.
 - Emakumeen eta gizonen berdintasuna, genero-indarkeriarik gabeko bizitza bat lortzeko premisa gisa.
- Genero-indarkeriari buruzko prestakuntza-eskaintza areagotu eta kolektibo profesional guztientzat zabaltzea behar da, baina lehentasunez, epaileentzat, letradu-laguntzarentzat eta fiskaltzarentzat. Eta sistematikoki sartu behar dira honako hauei buruzko edukiak: genero-indarkeria eta **indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak, aniztasun funtzionala eta hainbat jatorritako emakume atzerritarrak.**
- **On-line eztabaida eta prestakuntza foro bat** antolatu behar da, kolektibo bakoitzarentzat: **epaileak eta fiskaltza** eta **letradu-laguntza**; kasuistika espezifikoa izango da haria, parte-hartzea errazteko.
- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak sortu behar dira **operadore juridikoentzat**, rol nagusia izango dutela **bizirik atera diren biktimek** eta laguntza, orientazio juridikoa eta arreta psikologikoa ematen duten **elkartee**k, zuzeneko komunikazioa lortu nahi baita hausnarketa-gune batean.
- Kontuan izan behar da **interprete-zerbitzuek** behar besteko prestakuntza izan behar dutela genero-indarkeriari buruz eta emakume erabiltzaileen kulturari buruz.
- **Letradu-laguntzari** ere prestakuntza eman behar zaio, **uler dadin zer ezaugarri dituzten biktimen kulturek eta kultura horietan nola bizi duten sexua-generoa harremana.**
- Biktimei zerbitzua ematen dieten entitateak **kontratatzeko betekizunen artean**, gaikuntza (esperientzia eta/edo prestakuntza) sartu behar da, hain zuzen ere, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen biktimak, aniztasun funtzionala dutenak, adingabeak eta beste kolektibo batzuk artatzeko beharrezkotzat jotzen den gaikuntza.
- Prestakuntza espezifikoa egin behar da **tratu txar psikologikoak baloratzeko**, AMEIrako, eta prestakuntza hori lehenetsi behar da auzitegi-medikuen artean.
- **Genero-indarkeriari eta sistema judizialaren legeriari eta funtzionamenduari buruzko prestakuntza** zabaltzea egin behar da: jaso dezatela, baita ere, biktimak artatzen diharduten **gizarte-zerbitzuetako langileek eta beste agente eta operadore juridiko batzuek.**

- Eremu judizialeko profesionalentzako eta operadore juridikoentzako prestakuntza-dukietan, sartu egin behar da gizarte-zerbitzuek zer eskumen, helburu, premia eta prozedura dituzten genero-indarkeriaren biktimekin esku-hartzeko.

Ondoren, gomendioak sartzen dira, **operadore juridikoei** eta **beste zerbitzu batzuei** buruz; kategoria bi daude: baliabideak eta jarduerak.

3.3.3. BALIABIDEAK ETA JARDUERAK

EPAITEGIAK ETA FISKALTZAK

Ondorioen lehen atalean zehaztu denez, hobetu beharrekoak dira honako hauek:

- Langile gehiago jarri behar dira eta langile horien gaikuntza sendotu, eta, hartara, biktimei ematen zaien laguntza/asistentzia indartu.
- Epaitegietako egiturak hobetu behar dira, erabiltzaileen eta adingabeen segurtasuna, konfidentziasuna eta ongizatea bermatu ahal izateko eta aniztasun funtzionala (fisikoa, psikikoa eta sentzoriala) duten pertsoneri sarbide eta erabilera bera bermatu ahal izateko.
- Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak gehitu behar dira, guardia-txandak antolatu, eta/edo ezarritako prozesuak eta eskumen-banaketak berrikusi.
- Epaitegi eskudunak baliabide eta zerbitzu espezifikoez hornitu behar dira.
- Baliabide eta zerbitzu espezifikoak sartu behar dira sexu-erasoen biktimei arreta emateko prozeduretan.

GOMENDIOAK

- Erraztu egin behar da, eta ondoren instituzionalizatu, presente egotea **genero-indarkeriari buruzko prestakuntza eta esperientzia duten gizarte-zerbitzuetako profesionalak eta/edo biktimak artatzen dituzten elkarteak edo epaitegietan azpikontrataturako erakunde profesionalak**, arreta- eta laguntza-funtzio horiek egin ahal ditzaten; izan ere, arretak prestakuntza espezifikoa eskatzen du, eta funtzio hori ez dagokie ez epaitegiei, ez letradu-laguntzari, nahiz eta funtzio horiek egiten ari diren baliabide nahiz esparru espezifikorik izan gabe.
- Babes-, prestakuntza- eta motibazio-programak eskaini behar zaizkie **Administrazioko administrariei eta letraduei**, kasu horiei hobeto hel diezaien, eta hartara, egoera horien konplexutasunak dakarkien inpaktu emozionala, segurtasun-gabezia eta motibazio-falta gutxitu dakien.
- Baliabide espezifikoak bideratu behar dira, **fiskalaren presentzia edo elkarrizketa ahalbidetzeko —biktimarekin gutxienez—**, biktimak sistemarekin duen lehen kontaktuan.

- **Aniztasun funtzionala** dutenei epaitegietan **sartzea** eragozten edo zailtzen dieten zailtasunak, askotan gaindiezinak, berrikusi egin behar dira, eta kendu.

LETRADU-LAGUNTZA

2012tik 2016ra bitartean, genero-indarkeriaren eta sexu-erasoen txanda espezifikoa inskribatuta dauden letraduak progresiboki gehitu dira hiru lurraldeetan (% 20 baino gehiago). Profesionalak gehitzeak ez du ekarri baliabide ekonomikoak gehitzea, zeintzuk ez baitira askorik aldatu, nahiz eta eutsi egiten zaion artatutako kasu bakoitzerako erabakitako zenbatekoari; zenbateko hori ez da nahikoa, kolektibo horretako gehienen iritziz. Saihestezina da prekaritate horrek artatzen diren emakumeei eragitea, zeharka bada ere.

GOMENDIOAK

- **Akusatuari letradu-laguntza** bermatu behar zaio, prozeduretan atzerapenik ez gertatzeko eta biktimek itxaronaldian izaten duten ezegonkortasuna eta segurtasun-gabezia ez luzatzeko. Gai hori lehentasunezkoztat jotzen da prozesuak hobetzeko, eta kasu-metatzeak nabarmen arindu ditzakeen elementua da.
- Koordinatu egin behar da **indarkeriaren arloko txanda eta atzerritartasunaren arloko txanda**, zeina egun sortu gabe dagoen.
- Prozedura zibiletan, ez dago genero-indarkeriarako arreta juridiko espezifikorik, eta, horregatik, beharrezkoa da **txanda espezifikoko letraduak jarrera proaktiboa izatea**, prozesu zibilaren ardura duen edo izango duen epailearekin harremanetan jartzeko eta **bien jarduerak koordinatzeko**.
- Sistema judizialek pasatu diren biktimen iritziz, letradu-laguntza **faktore erabakigarria da indarkeriarik ateratzeko** eta prozesua arrakastatsua izateko:
 - Informazio erabakigarria eman dezake
 - Segurtasuna eta babesa eman dezake prozesuaren mugarrietan edo gogogabetzea eragin dezake
 - Behar den moduko deklarazio bat lor dezake
 - Biktimari onuragarriena dena gomendatu diezaioke edo elementu distortsio-eragileak edo nahasgarriak sar ditzake.

Profesionalek kontuan izan behar dute etengabeko indarkeriak eta tratu txarrekin distortsionatu egiten dutela biktimen normaltasuna eta egoera emozionala, hondatu egiten dutela haien autoestimua, eta beste inpaktu batzuk ere sor ditzaketela horiengana; oro har, hori izango da biktimek sistemarekin duten lehen kontaktua, eta sistema, zeina ez baita oso malgua, ez dago prestatua nahiz bideratua haien bizi-premiei eta tratu-premiei erantzuteko, haien eskubideak bermatzeko...

Beraz, beharrezko informazioaz gainera, garrantzitsua da profesionalak honako hau izatea:

- Behar beste **informazio izan behar dute genero-indarkeriaren biktimetzako arreta-baliabideei eta baliabide ekonomikoei buruz**, eta eremu guztietan (esaterako, etxebizitza izateko) dauden onurak baliatzeko erraztasunei buruz. Eta hori dagokion unean eman behar diete biktimei.
- Ezinbestekoa da haien presentzia **deklarazioa** aurkeztu baino lehen, deklarazioa elkarrekin prestatu ahal izateko, egoerari buruzko **informazioa lortzeko** eta **emakumea epaitegian egin behar duen agerraldirako prestatzeko**.
- Garrantzitsua da gogoraraztea beharrezkoa dela **emakumeari aholku ematea babes-agindurako eskabidean seme-alabentzako babesa** sar dezan, eta jakinaraztea seme-alabak zuzeneko biktimak direla eta eskubide berberak dituztela —legearen arabera—¹⁷, eta hori zergatik komeni den eta horrek zer abantaila dakartzan adingabeen eta biktimaren beraren babes eta segurtasunerako.
- **Jakinarazi egin behar dute aukera dagoela ahozko judizioa atea itxita egiteko**, alderdiek hala eskatzen badute, **eta hala eskatu behar dute**, biktimak hori nahi baldin badu.

AUZITEGI MEDIKUNTZAKO EUSKAL INSTITUTUA

Baliabideak eta azpiegiturak hobetzeko beharra ere ikusi da eremu hauetan:

- Lan-gainkargak langile gehiago sartzearen beharra erakusten du (gizarte-langile bat kasu batean, eta psikologo bat, bestean). Hala ere, **psikologoen estaldura berrikusi egin behar da espezializazio-betekizunak zerbitzuaren beharretara egokitzeko**; izan ere, txostenak atzerapen handiz egiten dira batzuetan, eta horrek kalteak ekartzen dizkie biktimei eta prozedurei.
- Bestalde, **tresna hauek** garatu eta bateratu egin behar dira:
 - **Tratu txar psikologikoen baloraziorako**, zerbitzutik kanpora txostenekiko sinesgarritasuna eta konfiantza areagotzea.
 - Aplikazio informatikoa, **datu indibidualak erregistratzeko**.
 - Aplikazio informatikoa, **datu sozioekonomikoak erregistratu eta kudeatzeko**, azterlana eta ezagupena ahalbidetzearren.
- **Baliabide eta tresna materialak** behar dira, peritu-frogak erraztu eta hobetzeko.

¹⁷ 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa; 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzekoa eta Genero Indarkeriaren Aurka Oso-osoko Babesa Emateko Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoaren Atariko Titulua aldatzekoa.

- Oro har, gabeziak daude **azpiegituren** espazioetan, irisgarritasunean, segurtasunean eta konfidentziasunean; eskastasuna oso nabarmena da kasu batzuetan (Gasteiz), eta hobetu egin behar litzateke, segurtasuna, pribatutasuna eta ongizatea bermatzeko bai erabiltzaileei, bai zerbitzuko lantaldeari berari.
- Lesio fisikorik gabeko kasuetan, biktima ez da zalantzan jarri behar, sinesgarritasuna frogatu behar izateagatik; aitzitik, egitateen kontakizunean zentratu beharra dago.

LANTALDE PSIKOSOZIAL JUDIZALAK

- Lantalde Psikosozial Judiziala arautzen duen lege-esparruak du hobetzeko behar nabarmenena; izan ere, lantalde horiek sisteman sendo kateatu behar dira eta haren prozedurak indartu. Egoera sendoagoa izanez gero, haien txostenak kontuan hartuko lirateke eta txosten horiekiko konfiantza handiagoa egongo litzateke instrukzioan eta ondorio judizialean, ikusten baita txostenak batzuetan ez direla oso aintzat hartzen epaitegietan.

BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA

- Beharrezkoa litzateke beste operadore juridiko batzuekiko eta letradu-laguntzarekiko koordinazioa berrikustea, asko murriztu baita azken urtean.

3.3.4. AZKEN GOMENDIOAK

- 🗳️ **Indarkeriaren eraginpean dauden adingabeak zuzeneko biktimatzat hartzen duen kontzeptua sartzea** premia orokortua da operadore juridiko guztientzat. Jarduerak berekin ekarri behar dute:
 - Eremu horri buruzko prestakuntza lehenestea, legeriaren eta psikologiaren ikuspuntutik, operadore juridiko eta gizarte-zerbitzu guztientzat.
 - Genero-indarkeriaren kasuetan bisita-erregimenaren finkapena berrikustea.
 - Kokapen-egoerak eta ikuspegia egokitzea, amen tratamenduari dagokionez, familia-elkarguneetan.
 - Babes-aginduetan adingabeak babesteko eskatzea.
- 🗳️ **Bizirik atera diren biktimak oneratzeko eta ahalduentzeko programak** oso ondo balioesten dituzte erabiltzaileek, euren bizitzetan oso eragin ona ekarri duten elementutzat daukate; beraz, beharrezkoa litzateke programa horiek indartzea eta horretarako baliabideak jartzea, emakume biktimekin elkarlanean.
- 🗳️ Operadore juridikoen eta instituzioen artean, **koordinazio-arazo batzuk ikusi dira** (batzuetan, lurraldearen arabera, desberdinak izan dira, eta, beste batzuetan,

orokorrak); beraz, **beharrezkoa litzateke arazo horiek aztertzea**, zerk sortzen dituen jakiteko eta hobekuntzak egin ahal izateko.

- ✘ Azkenik, kontuan hartuta Erakundeen Arteko II. Akordioa EAEko esparru komuna dela eta segimendua hortik planifikatzen eta egiten dela —Batzordearen eta Erakundearteko Talde Teknikoaren bidez—, parte hartzen duten instantzia batzuek uste dute beharrezkoa dela II. Akordioa birformulatzea, genero-indarkeriaren beste kasu batzuk sartzeko (Erakundeen Arteko II. Akordioa, Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko).

